



Oiartzungo Elizalde auzoko ELI-6 eremuko Plan Partzialean genero-ikuspegia txertatzea

Prozesuaren memoria

2024ko azaroa

Txosten honetan jaso da 2024ko uztailaren eta azaroaren artean Oiartzungo Elizalde auzoko ELI-6 eremuko Plan Partzialean genero-ikuspegia txertatzeko garatu den prestakuntza- eta partaidetza-prozesuaren memoria. Txostena beste dokumentu hauekin osatzen da:

- **Prozesuaren emaitza.**



Sustatzailea
Oiartzungo Udala



Lan honek **Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren** dirulaguntza jaso du.



Aholkularitza teknikoa eta idazketa
Projekta Urbes




Parte-hartze prozesuan hiru saio egin dira herritarrekin, bai eta galdetegi digital bat osatzeko aukera eman ere. Aipatzekoa da Oiarzungo Udaleko arduradun politiko zein teknikoek inplikazioa, beraiei zuzendutako bi prestakuntza-saio espezifikoetan partaidetza-maila oso altua erakustez gain (14-15 partaide), herritarrekin egindako saioetan ere aktiboki hartu bait dute parte.

Aurkibidea

1	Laburpen-taula	4
2	Prestakuntza	6
3	Prozesuaren memoria	16

1 Laburpen-taula

Taula honetan laburtu dira parte-hartze prozesuari dagozkion saio eta lanketa guztiak.



Data	ID	Jarduera mota	Edukiak	Parte-hartzaileak			Helburuak
				P	T	E	
-	K01 K02	Koordinazio bilerak	-	•	•	-	Hainbat koordinazio-bilera egin da prozesuan zehar.
07.09	PRE1	Prestakuntza: Udal mahaia 1	Aurkezpena	•	•	-	Udaleko arduradunei prestakuntza ematea (lehenengo zatia).
07.16	PRE2	Prestakuntza: Udal mahaia 2		•	•	-	Udaleko arduradunei prestakuntza ematea (bigarren zatia).
09.13	KOM1	Komunikazioa 1	Oharra webgunean	-	-	-	Prozesua aurkeztea eta emakume zein herritarrei gonbidapena luzatzea parte hartzeko.
09.18	PRE3	Prestakuntza: Emakumeak eta herritarrak	Aurkezpena Diagnostiko-fitxa	•	•	•	Emakume taldeetako partaideei eta herritarrei prestakuntza ematea.
09.23	PH1	Parte-hartzea: Emakume taldeak eta herritarrak 1	Txuleta: 32 irizpide Proposamen-fitxak	•	•	•	Taldea Elizaldeko diagnostikoa egitea genero-ikuspegitik, 4 esparrutan: etxebizitza, kaleak, espazio publikoa eta ekipamenduak.
10.09	KOM2	Komunikazioa 2	Oharra webgunean	-	-	-	Herritarrei gonbidapena luzatzea galdetegi betetzeko eta azken saioan parte hartzeko.
10.09 10.17	PH2	Galdetegia	Galdetegi digitala	-	-	•	Herritarrek Elizaldeko azterketa egitea, genero-ikuspegia txertatzen duen galdetegi bati jarraituz.
-	DIA	Diagnostikoaren mapa digitala	Mapa digitala	•	•	•	Prestakuntzan zehar eta galdetegiaren bitartez jasotako ekarpenak antolatzea eta partekatzea.
10.14	PH3	Parte-hartzea: Emakume taldeak eta herritarrak 2	Aurkezpena	•	•	•	ELI-6 eremuko garapenaren sustatzaileak egindako proposamenen zirriborroak ezagutzea, eta haiei ekarpenak egitea genero-ikuspegitik.

2

Prestakuntza

Parte-hartze eta prestakuntza prozesu mistoaren metodologiari jarraitu zaidio lanketa honetan. Prestakuntzari dagokionez, emakume taldeekin eta herritarrekin arinagoa izan(2 ordu inguruko saio espezifiko bat, gehi "pilulak" parte-hartze saioetan), Udaleko arduradunekin —politikariak zein teknikariak— lan sakonagoa egin da. [Esteka honetan](#) dago eskuragarri Udaleko arduradunekin egindako prestakuntzan erabilitako materiala (PDF, 43MB, 239 orr.). Hurrengo orrietan jaso dira edukien zenbait irudi:




Azala




Generoaren araberako eraginaren ebaluazioari buruzko atala.


Genero ikuspegia, 7 ardatzen bitartez La perspectiva de género, mediante 7 ejes	Hirigintza eta inguruneen diseinua Urbanismo y diseño de entornos
Aniztasuna eta ekitatea Diversidad y equidad	Metodologia, prozesua Metodología, proceso
Segurtasuna eta babesa Seguridad y protección	Hiri-eredua Modelo urbano
Irisgarritasuna eta autonomia Accesibilidad y autonomía	Mugikortasuna Movilidad
Osasuna eta ongizatea Salud y bienestar	Espazio libreak Espacios libres
Erreprodukzio-lana Trabajo reproductivo	Ekipamenduak Equipamientos
Kontziliazioa eta denboraren erabilerak Conciliación y usos del tiempo	Etxebizitza Vivienda
Presentzia eta parte-hartzea Presencia y participación	Jarduera ekonomikoak Actividades económicas


 OIARTZUNGO UDALA **Genero-ikuspegia hirigintzan eta inguruneen diseinuan txertatzea** projekta.eus
Gizartea helburu
 Integración de la perspectiva de género en el urbanismo y en el diseño de entornos projekta
URBES


Hiri-plangintzako esparruak eta horietan genero-ikuspegia txertatzeko ardatzen proposamena.



Desberdinkeria-ardatzak Hirigintzan eta Arkitekturan. Interseksionalitatea.



Diagnostikoetan datuak banakatzea. Errenta-arrakalak Oiartzunen (EUSTAT, 2023): 18 urtetik gorakoen artean, gizonen erdiak 25.100 euro baino gehiago dauka, eta emakumeen erdia ez da iristen 16.200 euro tara.



Errenta-arrakalak Oiartzunen (EUSTAT, 2023): 18 urtetik gorakoen artean, emakumeek dauzkaten 100 euroko, gizonak 140 daukate. Genero-ikuspegiaren tresnak aplikatuz, beste arrakala batzu ere hauteman daitezke 18 urtetik gorakoen errenta pertsonalaren inguruan: adibidez, oiartzuarren erdi "aberatsenaren" batz-besteko errenta 39.045 eurokoa den bitartean, oiartzuarren erdi "pobrearena" 8.933 eurokoa da (4,4 aldiz altuagoa da!). Galdera ugari sortu ziren hemen: Seguru al gaude guztien beharrianak direla kontuan hartu beharrekoak? Ez al da bidezkoagoa oiartzuarren erdi baten beharrak lehenestea? Parte-hartzea al da arrakala hauek murrizteko baliabide egokiena? izan ere, nortzuk etortzen dira parte-hartze prozesuetara?

Aniztasuna Diversidad	Metodologia Metodología	Hiri-eredua Modelo urbano	Mugikortasuna Movilidad	Espazio libreak Espacios libres	Ekipamenduak Equipamientos	Etxebizitza Vivienda	Jard. ekonomikoak Activid. económicas
---------------------------------	-----------------------------------	-------------------------------------	-----------------------------------	---	--------------------------------------	--------------------------------	---

Aniztasuna		Autonomia eta segurtasuna			Lan erreproduktiboa			Ongizatea eta osasuna			Lan produktiboa
"Bizitza guztietarako" inguruneak bermatzea.	"Bizitza osorako" etxebizitzak bermatzea.	Eraso fisiko, sexual eta sexisten aurrean segurtasuna areagotzea.	Osootasun fisikorako kalte eta arriskuen aurkako babesa handitzea.	Ingurune fisikoaren irisgarritasuna handitzea.	Ingurune fisikoaren funtzionaltasuna bermatzea lan erreproduktiboari dagokionez.	Erantzunkidetasuna eta lan erreproduktibo partekatua erraztea.	Proiektuetan lan erreproduktiboaren balioa aitortzea.	Ondoez fisiko eta mentaletik babestea.	Ongizate fisiko eta mentala sustatzea.	Gizarte-kohesioa eta harreman sozialak sustatzea.	Bizitegi-ingurunean bertan produkzio-azpiegitura egokietarako sarbidea erraztea.
Aniztasuna diagnostikatzea eta aintzat hartzea.	Gelen moldagarritasuna handitzea.	Ikusizko kontrola eta ingurunearen interpretazioa bermatzea.	Ingurune domestikoan istripuen aurkako babesa bermatzea.	Neurri minimoetan oinarritutako estandarrak ez hartzea.	Lan erreproduktiboari dagokionez, inguruneen segurtasuna eta ergonomia bermatzea.	Etxebizitzaren diseinuaren bitartez, etxeko lanetan erantzunkidetasuna erraztea.	Eskakizun kuantitatiboak eskuzabaltasunez ezartzea eta gutxieneko balioak proiekturako erreferentzia gisa ez hartzea.	Eragile gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta kutsatzaileen eragina murriztea.	Proiektuetan eta ingurune edo elementu naturalen arteko harremana sustatzea.	Jendea elkartzeko eta biltzeko guneak jartzea.	Etxebizitzan produkzio-espazio egoki baten egokitzapena erraztea.
Jabetzea errazten duten ingurune moldagarriak eskaintzea.	Etxebizitzaren malgutasuna handitzea.	Ibilbide eta pasagune nagusien gaineko norberaren kontrola erraztea.	Ibilgailu handien eta/edo azkarren aurkako babesa bermatzea.	Laguntza eta zainketa-lanak irisgarritasun fisikoan txertatzea.	Etxeko lanei dagokionez, inguruneen eraginkortasuna eta efizientzia handitzea, bai eta garbiketa eta mantentze-lanak erraztea ere.	Barneko eta kanpoko espazio komun diseinuaren bitartez zainketa-lan partekatua erraztea.	Lan erreproduktiboari lotutako espazioen balio erreferentzia gisa ez hartzea.	Balio minimoetan oinarritutako estandarrak ez hartzea.	Proiektuetan eta hurbileko espazio publikoaren arteko harremana sustatzea.	Bat-bateko topaketak eta bilera gertatzen diren guneak arreta jartzea.	Eraikineko gune komunitarioetan produkzio-espazioen egokitzapena erraztea.
Etxebizitza eskaintza anitza egitea.	Bizi-zikloari erantzutea eta etxebizitza mendekotasunerako aurreikustea.	Berezko zaintza erraztea.	Intrusioa aurreikustea eta haren gaineko kontrola erraztea.	Diseinu-baliabideak txertatzea, irisgarritasun sensoriala eta kognitiboa areagotzeko.	Etxeko- eta zainketa-lanen aldebereotasuna erraztea.		Proiektua erakitzeko bizi-lagunen ongizatean izan dezakeen eragina kontuan hartzea.	Proiektua erakitzeko bizi-lagunen ongizatean izan dezakeen eragina kontuan hartzea.	Etxebizitza bakoitzari kanpoko espazio propioa zabala bermatzea.	Lan erreproduktibo partekatua bizikidetzarako eta harreman sozialerako baliabide gisa hartzea.	Lan produktiboaren eta erreproduktiboaren bateragarritasuna erraztea.
Etxebizitza deshierarkizatzea	Kontsumoen eta mantenu-lanen kostuak txertatzea proiektuan.	Segurtasun ezaren sententzia larriagotu dezaketen neurri zuzentzaileak saihestea.	Ustekabeko topaketen ondoriozko ezustekei aurrea hartzea.		Etxeko lan erreproduktiboari lotutako arrisku psikosozialak murriztea.		Lan erreproduktiboaren eta horri lotutako espazioen zentraltasuna eta ikusgarritasuna proiektuetan balio erantsi gisa hartzea.	Mugikortasun aktiboa eta jardurea fisiko sustatzea.	Norberaren eta hurbileko ingurunea bereganatzea eta hura egokitztea erraztea.	Espazio publikoaren eta pribatuaren arteko trantsizioa mailakatzea.	Produkzio-lana etxean egiteari lotutako arrisku psikosozialak eta laboralak murriztea.
											Produkzio-espazioak bere horretan edo potentzialki proiektuan sartzea balio erantsi gisa hartzea.


Genero-ikuspegia hirigintzan eta inguruneen diseinuan txertatzea
 Integración de la perspectiva de género en el urbanismo y en el diseño de entornos

projekta.eus
Gizartea helburu


projekta URBES

Eusko Jaurlaritzaren "Bizitza guztietarako etxeak"¹ gidak proposatzen duen dimentsioen, helburuen eta irizpideen markoa, etxebizitza kolektiboan proiektuetan genero-ikuspegia txertatzeko

¹ "BIZITZA GUZTIETARAKO ETXEAK. Etxebizitza kolektiboan proiektuetan genero-ikuspegia txertatzeko gida" (Eusko Jaurlaritza, 2023).

https://www.euskadi.eus/web01-a2aznscp/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aOhtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=053100&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf

Segurtasuna Seguridad	Metodologia Metodología	Hiri-eredua Modelo urbano	Mugikortasuna Movilidad	Espazio libreak Espacios libres	Ekipamenduak Equipamientos	Etxebizitza Vivienda	Jard. ekonomikoak Activid. económicas
--------------------------	----------------------------	------------------------------	----------------------------	------------------------------------	-------------------------------	-------------------------	--

proiekta.eus
Gizartea helburu

proiekta
URBES

OIARTZUNGO
UDALA

Genero-ikuspegia hirigintzan eta inguruneen diseinuan txertatzea
Integración de la perspectiva de género en el urbanismo y en el diseño de entornos

Segurtasuna erasoen aurrean. ELI-6 eremuan eraikiko den tipologiaren adibide bat, genero-ikuspegitik eragin ditzakeen kalteen aurrean neurri zuzentzaileak lehen bait lehen abian jartzeko helburuarekin mahai gainean arazo gisa jarri dena. Proposamenen txostenean jaso dira honen inguruko ekarpen eta gomendioak.

Segurtasuna Seguridad	Metodologia Metodología	Hiri-eredua Modelo urbano	Mugikortasuna Movilidad	Espazio libreak Espacios libres	Ekipamenduak Equipamientos	Etxebizitza Vivienda	Jard. ekonomikoak Activid. económicas
--------------------------	----------------------------	------------------------------	----------------------------	------------------------------------	-------------------------------	-------------------------	--

Istripuak? "Tráfikoa"?
¿Accidentes? ¿"Tráfico"?

Gráfica 18: conductores-as de turismo implicados-as en accidentes de tráfico con víctimas en ciudad, distribuidos por sexo, datos ponderados sobre el total de carnés de cada sexo y edad, 2003 (elaboración propia a partir de estadísticas de la DGT).

proiekta.eus
Gizartea helburu

proiekta
URBES

OIARTZUNGO
UDALA

Genero-ikuspegia hirigintzan eta inguruneen diseinuan txertatzea
Integración de la perspectiva de género en el urbanismo y en el diseño de entornos

Segurtasuna trafikoaren aurrean. Gure herrietan, batez ere gizonak hiltzen eta zauritzen dituzte oinezkoak, eta batez ere emakumeak dira hildakoak eta zaurituak. "Istripuak" al dira guztiak, ala diseinu desegoki baten ondorio gisa ere uler daitezke? "Trafikoa" al da arriskutsua, ala gizonen gidatzeko modua da arazo larriena?

Irisgarritasuna Accesibilidad	Metodologia Metodología	Hiri-eredua Modelo urbano	Mugikortasuna Movilidad	Espazio libreak Espacios libres	Ekipamenduak Equipamientos	Etxebizitza Vivienda	Jard. ekonomikoak Activid. económicas
---	-----------------------------------	-------------------------------------	-----------------------------------	---	--------------------------------------	--------------------------------	---

proiektua.eus
Gizartea helburu

OIARTZUNGO UDALA **Genero-ikuspegia hirigintzan eta inguruneen diseinuan txertatzea**
Integración de la perspectiva de género en el urbanismo y en el diseño de entornos

proiektua URBES

Irisgarritasuna. Plangintzako lehen faseetan hartzen diren erabakiek ondorio larriak eragin ditzakete irisgarritasunaren gainean. Genero-ikuspegitik interes bikoitza dago irisgarritasunaren inguruan: batetik, EAEn desgaitasuna duten hirutik bi emakumeak direlako, eta bestetik, pertsona batek autonomia galtzen duenean zaintzaile bat lanez zamatzen delako, emakumea gehienetan.

Osasuna Salud	Metodologia Metodología	Hiri-eredua Modelo urbano	Mugikortasuna Movilidad	Espazio libreak Espacios libres	Ekipamenduak Equipamientos	Etxebizitza Vivienda	Jard. ekonomikoak Activid. económicas
-------------------------	-----------------------------------	-------------------------------------	-----------------------------------	---	--------------------------------------	--------------------------------	---

Göran Dahlgren & Margaret Whitehead
1992

proiektua.eus
Gizartea helburu

OIARTZUNGO UDALA **Genero-ikuspegia hirigintzan eta inguruneen diseinuan txertatzea**
Integración de la perspectiva de género en el urbanismo y en el diseño de entornos

proiektua URBES

Osasuna. Hiri-plangintza bate egitean, osasunerako oso garrantzitsua den kode baten ezaugarriak zehazten dira. Kode hori ez da kode-genetikoa, posta-kodea baizik. Plan Partzial batek osasun fisiko, mental eta sozialaren determinatzaile askoren gainean eragiten du, eta arduradunek ulertu behar dute hii-plangintza egitea osasuna eraikitzea ere izan daitekeela.

Osasuna Salud	Metodologia Metodologia	Hiri-eredua Modelo urbano	Mugikortasuna Movilidad	Espazio libreak Espacios libres	Ekipamenduak Equipamientos	Etxebizitza Vivienda	Jard. ekonomikoak Activid. económicas
------------------	----------------------------	------------------------------	----------------------------	------------------------------------	-------------------------------	-------------------------	--



Ze mugikortasun?



Eguneroko mugikortasuna - Zaintzaren mugikortasuna...
Movilidad cotidiana - Movilidad del cuidado...



projekta.eus
Gizartea helburu

**projekta
URBES**



Genero-ikuspegia hirigintzan eta inguruneen diseinuan txertatzea
Integración de la perspectiva de género en el urbanismo y en el diseño de entornos

Zaintzaren mugikortasuna, eguneroko mugikortasuna.

Erreproduzio-lana Trabajo reproductivo	Metodologia Metodologia	Hiri-eredua Modelo urbano	Mugikortasuna Movilidad	Espazio libreak Espacios libres	Ekipamenduak Equipamientos	Etxebizitza Vivienda	Jard. ekonomikoak Activid. económicas
---	----------------------------	------------------------------	----------------------------	------------------------------------	-------------------------------	-------------------------	--





projekta.eus
Gizartea helburu

**projekta
URBES**








Genero-ikuspegia hirigintzan eta inguruneen diseinuan txertatzea
Integración de la perspectiva de género en el urbanismo y en el diseño de entornos

Espazio publikoa, lanleku.

Erreproduzio-lana Trabajo reproductivo	Metodologia Metodología	Hiri-eredua Modelo urbano	Mugikortasuna Movilidad	Espazio libreak Espacios libres	Ekipamenduak Equipamientos	Etxebizitza Vivienda	Jard. ekonomikoak Activid. económicas
							
							projekta.eus Gizartea helburu
		Genero-ikuspegia hirigintzan eta inguruneen diseinuan txertatzea Integración de la perspectiva de género en el urbanismo y en el diseño de entornos					

Etxebizitza, lanleku.

Kontziliazioa Conciliación	Metodologia Metodología	Hiri-eredua Modelo urbano	Mugikortasuna Movilidad	Espazio libreak Espacios libres	Ekipamenduak Equipamientos	Etxebizitza Vivienda	Jard. ekonomikoak Activid. económicas
							
							
							projekta.eus Gizartea helburu
		Genero-ikuspegia hirigintzan eta inguruneen diseinuan txertatzea Integración de la perspectiva de género en el urbanismo y en el diseño de entornos					

Kontziliazioa. Hirigintzak zehazten ditu erabilera desberdinen kokapenak: etxebizitzaren eta baliabide desberdinen arteko distantziak ezarriz, erabakitzen da "zenbat kostatuko zaigun", denborari dagokionez, auzo batean, herri batean edo eta eskualde batean bizitzea zein lan egitea.

Presentzia Presencia	Metodologia Metodología	Hiri-eredua Modelo urbano	Mugikortasuna Movilidad	Espazio libreak Espacios libres	Ekipamenduak Equipamientos	Etxebizitza Vivienda	Jard. ekonomikoak Activid. económicas
		Genero-ikuspegia hirigintzan eta inguruneen diseinuan txertatzea Integración de la perspectiva de género en el urbanismo y en el diseño de entornos					projekta.eus Gizartea helburu

Presentzia (goian arropa zintzilik, behean biribilguneak): Zer gai daude hirigintzaren erdigunean? Nork erabakitzen du gai batek gure herriko hiri-plangintzan garrantzia izango duen ala ez?

Presentzia Presencia	Metodologia Metodología	Hiri-eredua Modelo urbano	Mugikortasuna Movilidad	Espazio libreak Espacios libres	Ekipamenduak Equipamientos	Etxebizitza Vivienda	Jard. ekonomikoak Activid. económicas
		Genero-ikuspegia hirigintzan eta inguruneen diseinuan txertatzea Integración de la perspectiva de género en el urbanismo y en el diseño de entornos					projekta.eus Gizartea helburu

Memoria honi erantsi zaion Proposamenen txostena dokumentuan laburtu dira prestakuntza saioetan partaideekin partekatu ziren irizpideak genero-ikuspegia txertatzeko hiri-plangintzan.

3

Prozesuaren memoria

K01 Koordinazio-bilera 1

Helburuak Prozesurako proposatutako diseinua egokitzea eta zehaztea.

Jarduera mota Bilera.

Non / Noiz Udaletxeko Hirigintza Bulegoa.

2024/02/02, 9:00

Iraupena 01:45

Deitutakoak Proiektuarekin eta prozesuarekin lotutako udaleko hainbat arduradun eta langile.

Etorritakoak **5 partaide** (2 emakume, 3 gizon):

- Udaleko teknikari eta langileak:
 - _Maribi Joaristi, Hirigintzako Letradua.
 - _Andoni Etxezarreta, Udal Arkitektoa.
- Udaleko ordezkari politikoak:
 - _Agustin Lekuona, Hirigintzako zinegotzia.
- Aholkularitza:
 - _Patxi Galarraga (Projekta Urbes).
 - _Miren Vives (projekta Urbes).

Agertu ez direnak ---

Erabilitako materiala ---

Landutako gaiak **ELI-6 eremuaren ezaugarri nagusiak:**

- Fisikoak: mugak, orientazioa, inguruarekin loturak...
- Jada egin diren jarduketak: Urmendi haurreskola...
- Bizitoki ona (eskaera izango du), gainera auzoko hainbat gunerekin loturak osatu beharko ditu (igerilekua, ibaia eta Arditurriko bidegorria, zuhaiztia, hilerria...).

ELI-6 eremuan garatuko direnak:

- 200 etxebizitza inguru.
- Ekipamendu publikoak (Udal Liburutegia?): berariazko eraikinetan, ala bizitoki-eraikinetako behe-solairuetan txertatuz?

Parte-hartze prozesurako aukera desberdinak:

- Gutxi gora-beherako datak.
- Partaidetza-taldeak: aukerak, zailtasunak.

- Parte-hartze metodologia desberdinak.
- Diagnostikoaren esparrua: Elizalde auzoa.
- Oinarrizko helburuak:
 - _ELI-6 eremuak Elizaldeko beharrei ere erantzun beharko die.
 - _Karaez edo Orreaga bezalako "logela garapenik" EZ.
 - _Kotxearen erabilera mugatuko duen eremua izan dadila.
- Plan Partzialean eta proiektu honetan batez ere kontuan hartuko diren dokumentuak:
 - _HAPO (webgunean).
 - _Mugikortasun Plana (Ander Gortazar): oraintxe ari dira idazten.
 - _Puntu Beltzen inguruko lanketa bat egin zen duela zenbait urte?
- Herritarren parte-hartzea:
 - _Herritarren Foroan, partaideak mahaietan banakatu eta taldekatu, bere ezaugarrien arabera.
 - _Metodologia: Zarauzko Mapa Morean erabilitakoaren antzekoa.
 - _Ekainerako parte-hartzea amaitu, udazkenerako utzi itzulketan-saioa (edo zirriborroari ekarpenak egitea).
 - _Ekainean helburuak eta irizpideak zehaztu, Plan Partzialeko idazketa-taldeari emateko.
- "Berariazko Mahaiak" / "Mahai Bereziak": Emakumeak bai. Gurasoak? Eta ordezkari politikoak?
 - _Lehenengo saioa beraiekin egin, eta hurrengoetan, Herritarren Foroan txertatu, berariazko mahai(eta)n?
 - _Udaleko Teknikarien Mahaia: Herritarren Foroan txertatuko ez den bakarra.
- Prozesua udaberrira atzeratzea, Arraguako prozesua pasatakoan.

Hartutako erabakiak

Ebatzi gabeak

Epe motzera egitekoak

KO2 Koordinazio-bilera 2

Helburuak

- Prozesuaren diseinua eta egutegia berregokitzea eta zehaztea.
- Onartu berria den Mugikortasun Planak proiektu honetarako jaso dituen eduki nagusiak jasotzea.

Jarduera mota

Bilera.

Non / Noiz

Udaletxea.

2024/06/04, 11:45

Iraupena 00:30

Deitutakoak

Proiektuarekin eta prozesuarekin lotutako udaleko hainbat arduradun eta langile.

Etorritakoak

4 partaide (2 emakume, 2 gizon):

- Udaleko teknikari eta langileak:
 - _Maribi Joaristi, Hirigintzako Letradua.
 - _Andoni Etxezarreta, Udal Arkitektoa.
- Udaleko ordezkari politikoak:
 - _Joana Mendiburu, Alkatea.
- Aholkularitza:
 - _Patxi Galarraga (Projekta Urbes).

Agertu ez direnak

Erabilitako materiala

[Mugikortasun Plana.](#)

Landutako gaiak

Egutegia

- Arraguako parte-hartze prozesuak Elizaldekoa atzeratzera behartzen gaitu.
- Herritarren parte-hartzea uda pasatakoan abiatu, baina udaleko arduradun teknikoek eta politikoen prestakuntza udara aurretik egitea komeni da.

Onartu berria den Mugikortasun Planak jasotzen dituen edukiak, proiektu honekin lotura dutenak:

- "Pausoz pauso, kotxearen lehentasuna gutxitu eta mugikortasun jasangarriago eta osasuntsuago baten alde egitea du helburu."
- "Planak ez du «inolaz ere aurreikusten TAO/OTA jartzea», bai ordea bizikleten erabilera sustatzea eta garraio publikoa indartzea, besteak beste."
- "Elizalden oinezko guneak zabaldu."
- "Rafael Pikabea kalea birpentsatu; Makutso bidea eta Ozentzio kalea oinezkoago egin."
- "Bidegorrira sarrera berriak egokitu; bizikletentzat aparkaleku gehiago atondu..."

Hartutako erabakiak

Ebatzi gabeak

Epe motzera egitekoak

- "Kotxearen zentraltasuna eraldatu: Errepideak eta kaleak diseinatzerakoan oinezkoei lehentasuna eman; zenbait tokitan ibilgailuen abiadura mantsotzeko eta oinezkoen segurtasuna hobetzeko lanak egin; espaloi berriak eraiki; zenbait errepide norabide bakarreko bihurtu..."
 - "Hirigintza garapenak aurreikusterakoan mugikortasun jasagarria kontutan izatea arlo guztietan."
 - Udal-arduradunen prestakuntza udako oporren aurretik egitea.
 - Herritarren parte-hartzea udako oporrak pasatakoan abiatzea.
-
- **Projekta:** Udal-arduradunen prestakuntzarako edukiak eta saioak prestatu.
 - **Andoni:** Udal-kartografia eta Elizaldeko auzoaren mugak bidali.

PRE1 Prestakuntza: Udal mahaia 1

Helburuak Genero-ikuspegitik hirigintzari buruzko prestakuntza ematea Udaleko arduradunei (lehenengo zatia).

Jarduera mota Prestakuntza saioa, bi saiotik lehenena.

Non / Noiz Udaletxeko areto nagusia.

2024/07/09, 17:30

Iraupena 02:00

Deitutakoak

- Hirigintzako teknikariak.
- Ordezkarari politikoak.

Etorritakoak **15 partaide** (9 emakume, 6 gizon):

- Hirigintzako teknikariak.
 - Maribi Joaristi, Hirigintzako Letradua.
 - Andoni Etxezarreta, Udal Arkitektoa.
- Alkatea eta zinegotziak.

Agertu ez direnak ---

Erabilitako materiala

- [Aurkezpena](#) (PDF, 43MB, 239 orr.).
- [Diagnostikorako fitxa](#), partaideek banaka ekarpenak egiteko.

Landutako gaiak **Araudia eta generoaren araberako eraginaren ebaluazioa:**

- Irizpide orokorrak.
- Hirigintzari lotutako irizpideak.

Genero-ikuspegitik paradigma feministara:

- Diagnostikoen garrantzia.
- Aniztasuna, interseksionalitatea, ekitatea eta ekintza positiboa.
- Paradigma feminista.

Hirigintzan eta arkitekturan genero-ikuspegitia txertatzeko ardatzak, eta horiek hirigintzan zein hiri-proiektuetan txertatzeko proposamenak:

- Segurtasuna, erasoen eta mehatxuen aurrean.
- Babesa, trafikoak eragindako istripuen eta arriskuen aurrean.
- Irisgarritasun autonomoa.
- Mugikortasun jasangarri eta bidezkoa.
- Ongizate indibiduala: fisikoa eta mentala.
- Ongizate komunitarioa eta elkarbizitza.

- Erreproduzio-lana: zainketak eta denboraren kontziliazioa.
- Presentzia erreal eta sinbolikoa.

**Hartutako
erabakiak**

Ebatzi gabeak

**Epe motzera
egitekoak**

PREZ Prestakuntza: Udal mahaia 2

Helburuak Genero-ikuspegitik hirigintzari buruzko prestakuntza ematea Udaleko arduradunei (bigarren zatia).

Jarduera mota Prestakuntza saioa, bi saiotik bigarrena.

Non / Noiz Udaletxeko areto nagusia.

2024/07/16, 17:30

Iraupena 02:00

Deitutakoak

- Hirigintzako teknikariak.
- Ordezkarri politikoak.

Etorritakoak **14 partaide** (9 emakume, 5 gizon):

- Hirigintzako teknikariak.
 - Maribi Joaristi, Hirigintzako Letradua.
 - Andoni Etxezarreta, Udal Arkitektoa.
- Alkatea eta zinegotziak.

Agertu ez direnak ---

Erabilitako materiala

- [Aurkezpena](#) (PDF, 43MB, 239 orr.).
- [Dagnostikorako fitxa](#), partaideek banaka ekarpenak egiteko.

Landutako gaiak **Araudia eta generoaren araberako eraginaren ebaluazioa:**

- Irizpide orokorrak.
- Hirigintzari lotutako irizpideak.

Genero-ikuspegitik paradigma feministara:

- Diagnostikoen garrantzia.
- Aniztasuna, interseksionalitatea, ekitatea eta ekintza positiboa.
- Paradigma feminista.

Hirigintzan eta arkitekturan genero-ikuspegitia txertatzeko ardatzak, eta horiek hirigintzan zein hiri-proiektuetan txertatzeko proposamenak:


- Segurtasuna, erasoen eta mehatxuen aurrean.
- Babesa, trafikoak eragindako istripuen eta arriskuen aurrean.
- Irisgarritasun autonomoa.
- Mugikortasun jasangarri eta bidezkoa.
- Ongizate indibiduala: fisikoa eta mentala.
- Ongizate komunitarioa eta elkarbizitza.

- Erreproduzio-lana: zainketak eta denboraren kontziliazioa.
- Presentzia erreala eta sinbolikoa.

Hartutako erabakiak

Ebatzi gabeak

Epe motzera egitekoak



Mapa Digitalean daude ikusgai prestakuntza prozesuan zehar Udaleko arduradunek Elizalde auzoaren diagnostikorako egin zituzten ekarpenak, genero-ikuspegitik.

KOM1 Komunikazioa 1

Helburuak Prozesua aurkeztea eta emakume zein herritarrei gonbidapena luzatzea parte hartzeko.

Jarduera mota Komunikazioa udal webgunean.


Non / Noiz Udal webgunea.

2024/09/13

Deitutakoak Herritarrak.

Erabilitako materiala [Oharra udal webgunean](#)

Edukia **Elizaldeko kaleak eta plazak ikuspegi feministatik garatzeko prozesu parte-hartzailea jarri dute martxan**



Bi formakuntza saio izango dira irailean. Partaidetza bilerak urrian egingo dituzte.

Askorentzat hirigintza oso termino teknikoa da, zaila, urruna. Adituen arlotzat daukagu, arkitekto, aparejadore edo legelarien gaitzat. Bulegoetako lanetatik haratago ordea, hirigintza bada ere herritarrek kaleak eta plazak bizitzeko duten modua, mugitzeko egiten duten hautua, elkarbizitzarako edo aisialdirako sortzen diren guneak, etab.

Historia hurbilari erreparatuta, hiriak eta herriak ikuspegi maskulino eta heteronormatibo batetik diseinatu izan dira, nahiz egunerokoan, plazak eta kaleak emakumezkoek gehiago okupatzen dituzten komertzio txikira joanda edo zaintza zereginetan. Orain arteko hirigintza ereduak ez ditu emakumeen eta kolektibo zaugarrien premiak erdigunean jarri izan.

Hirigintzan eta hiri-diseinuan hartzen diren erabakiek guztioi eragiten digutelako Oiartzungo gune nagusia den Elizalde hainbat ardatzen arabera aztertu eta proposamenak egiteko prozesua martxan jarri du Udalak. Izan ere, Tolarieta eta hilerri arteko lurretan hurrengo urteetan garatuko den etxebizitza berrien antolaketa egiten hasi berri da Udala eta unea ezin hobea da genero ikuspegia eta hiri inklusiboa bultzatzeko baldintzak jarri eta Elizalde orokorrean hobetuko duen eredia sortzeko.

Formazioa eta parte-hartzea

Prozesuak ez ditu hirigintzan "adituak" behar, ez baitago herria egunerokoan bizi duten oiartzuarrak baino adituagorik. Oiartzunen bizitzen "arituak" diren emakume eta gizonekin egin nahi du bidea, herriko edozein auzotan bizi eta bertako kaleetan eta txokoetan orduak pasatzen dituzten herritarrekin.

Hirigintza gai arrotza dela jakitun, diagnosi eta ekarpen fasea egin aurretik, hirigintza feminista zer den lantzeko oinarrizko bi formakuntza saio antolatu ditu Udalak. Irailaren 18 eta 23an egingo dituzte, 18:30ean, udaletxeko areto nagusian. Ongizate indibiduala eta kolektiboa, irisgarritasuna, mugikortasuna, zaintza, kontziliazioa eta erasoekiko segurtasuna hirigintzan nola txertatu izango dira aztertuko dituzten gaietako batzuk.

Herriko espazioen eta eraikin publikoen azterketa genero-ikuspegitik egiteko tresnak eskuratuta, urrian parte-hartze saioak egingo dituzte, Oiartzungo eta bereziki Elizalde auzoko diagnostikoa egin eta proposamenak landuko dituzte.

Prestakuntza: Emakume taldeak eta herritarrak

Helburuak

- Emakume taldeei eta herritarrei prozesua aurkeztea.
- Hirigintzaren eta arkitekturaren arloetan genero-ikuspegiari buruzko prestakuntza ematea.
- Genero-ikuspegitik Elizaldeko puntu nabarmenenak adieraztea, begirada negatibotik zein positibotik.

Jarduera mota

Prestakuntza saioa.

Non / Noiz

Udaletxeko areto nagusia.

2024/09/18, 18:30.

Iraupena 01:45.

Deitutakoak

Emakume taldeak eta herritarrak.

Etorritakoak

17 partaide (15 emakume, 2 gizon):

- Emakume taldeetako partaideak eta herritarrak.
- Udaleko teknikari eta langileak:
 - Maribi Joaristi, Hirigintzako Letradua.
 - Andoni Etxezarreta, Udal Arkitektoa.
 - Maitane Iribar, Feminismo saileko arduraduna.
- Udaleko ordezkari politikoak:
 - Joana Mendiburu, Alkatea.
 - Nora Velez del Burgo, Feminismo saileko zinegotzia.
- Aholkularitza:
 - Patxi Galarraga (Projekta Urbes).

Agertu ez direnak

Erabilitako materiala

- [Aurkezpena](#) (PDF, 18MB, 84 orr.).
- [Laburpen-orria](#), genero-ikuspegia txertatzeko 32 irizpide jasotzen dituen.
- [Diagnostikorako fitxa](#), partaideek banaka ekarpenak egiteko.

Landutako gaiak

Genero-ikuspegitik paradigma feministara:

- Diagnostikoen garrantzia.
- Aniztasuna, interseksionalitatea, ekitatea eta ekintza positiboa.
- Paradigma feminista.


Hirigintzan eta arkitekturan genero-ikuspegitia txertatzeko ardatzak, eta horiek hirigintzan zein hiri-proiektuetan txertatzeko proposamenak:

- Segurtasuna, erasoen eta mehatxuen aurrean.
- Babesa, trafikoak eragindako istripuen eta arriskuen aurrean.
- Irisgarritasun autonomoa.
- Mugikortasun jasangarri eta bidezkoa.
- Ongizate individuala: fisikoa eta mentala.
- Ongizate komunitarioa eta elkarbizitza.
- Erreproduzio-lana: zainketak eta denboraren kontziliazioa.
- Presentzia erreala eta sinbolikoa.

Hartutako erabakiak

Ebatzi gabeak

Epe motzera egitekoak

	Hiri-diagnostiko partekatua genero-ikuspegitik		
	Lekua Lugar ▼	Ezaugarri bat, hitz batean Una cualidad, en una palabra ▼	Ezer gehiago? ¿Algo más? ▼
Segurtasuna Seguridad			
Babesa Protección			
Irisgarritasuna Accesibilidad			
Mugikortasuna Movilidad			
Ongizatea Bienestar			
Elkarbizitza Convivencia			
Zaintza-lanak Cuidados			
Presentzia Presencia			

Prestakuntzaren aplikazio zuzen gisa, Elizaldeko diagnostikoa eskatu zaie partaideei, aurkezpenari jarraituz: genero-ikuspegiaren ardatz bakoitzeko Elizaldeko leku esanguratsuena adierazteko eskatu zaie (bere ezaugarri positibo zein negatiboak direla-eta), bai eta lekuari buruzko ezaugarri bat ematea ere, hitz batean. Emaitzak Mapa Digitalean daude ikusgai (bigarren saioko fitxaren amaieran, maparen irudi bat ikusgai).

PH1 Parte-hartzea: Emakume taldeak + Herritarrak 1

- Helburuak**
- Emakume taldeetako partaideekin eta herritarrekin hirigintzaren eta arkitekturaren arloetan genero-ikuspegiari buruzko prestakuntzan sakontzea.
 - Elizaldeko diagnostikoan sakontzea eta garapen berrirako irizpideak adieraztea, genero-ikuspegitik.

Jarduera mota Lanketa-saioa.

Non / Noiz Udaletxeko areto nagusia.
2024/09/23, 18:30.
Iraupena 01:45.

Deitutakoak Emakume taldeak eta herritarrak.

- Etorritakoak** **19 partaide** (12 emakume, 7 gizon):
- Emakume taldeetako partaideak eta herritarrak.
 - Udaleko teknikari eta langileak:
 - _Maribi Joaristi, Hirigintzako Letradua.
 - _Andoni Etxezarreta, Udal Arkitektoa.
 - _Jon, Hirigintza saileko langilea.
 - Udaleko ordezkari politikoak:
 - _Joana Mendiburu, Alkatea.
 - _Agustin Lekuona, Hirigintzako zinegotzia.
 - _Nora Vélez del Burgo, Feminismo zinegotzia.
 - Aholkularitza:
 - _Patxi Galarraga (Projekta Urbes).

Agertu ez direnak ---

- Erabilitako materiala**
- [Mapa digitala](#), aurreko saioetako ekarpenak jasotzen dituena.
 - [Ekarpenak jasotzeko orria](#), taldeka hausnartu eta proposatzeko.
 - [Laburpen-orria](#), genero-ikuspegia txertatzeko 32 irizpide jasotzen dituena.

- Landutako gaiak** **Hirigintzan eta arkitekturan genero-ikuspegia txertatzeko ardatzak, eta horiek hirigintzan zein hiri-proiektuetan txertatzeko proposamenak:**
- Segurtasuna, erasoen eta mehatxuen aurrean.
 - Babesa, trafikoak eragindako istripuen eta arriskuen aurrean.
 - Irisgarritasun autonomoa.
 - Mugikortasun jasangarri eta bidezkoa.
 - Ongizate indibiduala: fisikoa eta mentala.
 - Ongizate komunitarioa eta elkarbizitza.

- Erreproduzio-lana: zainketak eta denboraren kontziliazioa.
- Presentzia erreala eta sinbolikoa.

Taldeka jartzeko eta proposamenak egiteko 4 esparruak:

- Espazio publikoak.
- Kaleak eta mugikortasuna.
- Etxebizitza.
- Ekipamendu publikoak eta lokalak.



Zer EZ egin?

- Aisia edo elkarguneak tabernetara mugatu.
- Plaza oso handiak.
- Aparkalekuei eman lehentasuna.
- Eskailera oso luzeak.

Zer egin?

- Espazio publikoaren inguruko hausnarketa.
- Espazio publikoa erabiltzeko herritarrei eman lehentasuna.
- Eremu goxoak sortu (berdeguneak, itzala, iturria, komuna, eserlekuak, eremu estaliak, mahaiaik...).
- Jolastoki txikiagoak, bat baino gehiago (Ikastolako parkea ikusi behar da eta aztertu, osagarri eginez).
- Bidegorriarekin lotura egin.
- Topografiara moldatu.
- Bizikletentzako aparkalekuak.
- Garraio publikoa Xorrolarekin lotu.
- Kirola kalean egiteko aukera, adib. kalistenia (Txaran badago).
- Txakurrentzako eremu bat (horrela kakak saihestu), txakurrentzako edukiontziak.
- Ekipamendu publikoak (Udal Liburutegia?): berariazko eraikinetan, ala bizitoki-eraikinetako behe-solairuetan txertatuz?

Kaleak eta mugikortasuna



Zer EZ egin?

- Bi norantzako kaleak.

Zer egin?

- Garraio publikoa bultzatu (Xorrola ez da zonalde horretatik pasatzen).
- Oinezkoen bideak lehenetsi (eremuak oinezko itxura izan dezala).
- Diseinua erabili kotxeak moteltzeko.
- Norantza bakarreko kaleak.
- Ikastetxeetako sarrera/irteerak jasangarriagoak egin.
- Autobus geltokietara ibilbide erosoak egokitu eta seinalezatu (kartelak).
- Bizilagun berriei galdetu nola mugituko diren (Elizaldeko "BlaBlaCar" bat?).
- Plaza aldean Rafael Pikabea oinezkotu, eta trafikoa Yon Oñatibiara pasa (oinezkoentzako gaur egun).
- Kanean aparkatzeko aukera eman ordez, garapen berrian jarri behar diren aparkaleku guztiak eremu bakarrean kontzentratu.
- Kotxeei trabak jarri.
- Udal lokalak egokitu bizikletak aparkatzeko.

Etxebizitza



Zer EZ egin?

- BS+4 solairu baino gehiagoko etxeak.

- Balkoirik gabeko etxebizitzak.
- Kanpotarrentzako etxebizitzak.

Zer egin?

- Askotariko jabetza-motak: alokairu soziala, libreak, babestutako jabetza (babes ofizialekoak, tasatuak), dotazionalak.
- Ezarritako epea agortu edo diru-sarrerak gainditu dituztenentzako, alokairu sozialeko edo babes ofizialeko etxebizitzetan bizi direnentzako epe luzagarriak aurreikusi.
- Logela bakarrekoak ere bai (adib. gazteentzako lehenengo etxebizitza).
- Etxe jasangarriak.
- Etxebizitza-eraikinetan espazio komun egokiak:
 - Sarbide peatonalak, ez aparkatzeko gunea atari aurrean.
 - Itzalguneak eta aterpeak.
 - Bizikleta-gela.
- Auzo mailako espazio komun egokiak:
 - Auzo-lokal bat.
 - Konposta egiteko espazioa.
- Fatxada irekiak: etxebizitza argitsuak, kale seguruagoak.
- Oinezko sarbide egokiak, atarien ondoan "zamilanetarako" espazioak aurreikusiz.
- Bidegorriekin lotura egokiak.
- Eremu berriak kotxe gehiago ekarriko du Elizaldera, eta horrek joan-etorri eta korapilo berriei lotutako arazoak kudeatzea eskatuko du.

Ekipamendu publikoak eta lokalak



Zer EZ egin?

- Parking erraldoiak (bai, ordea, etxeen azpian).
- Altuera handiko etxeak.

Zer egin?

- Emakumeen Etxea:
 - Formatzeko.
 - Elkartzeko, belaunaldi desberdinak topatzeko.
 - Arreta emateko.
 - Aretoa: zineforuma...

- Musika Eskola berria.
- [Muxikoak](#), dantza... egiteko lokala.
- Parkea, lorategia... Helduentzat zein haurrentzat.
- Paseo edo ibilbidea kiroldegia eta ELI-6 elkartuko dituen, baita bidegorriarekin ere.
- Lokalak:
 - _Kafetegia.
 - _Denda txikiak?
- Iturriak, komunak...

Elizaldeko
Mapa Morea

+

**ELI-6 eremuko Plan Partzialean
genero-ikuspegia txertatzeko prozesua**

Kaleak
Mugikortasun-sareak (oinez, bizikletaz, kotxez)
Ibilbide nagusiak, lehendik dagoenarekin loturak, kaleen diseinua eta ekipamendua...

Zer EZ egin?

Zer egin?

Esparru bakoitzeko taldeei orri bat betetzea eskatu zaie: irudian, "Kaleak eta mugikortasuna" taldearena.

Genero-ikuspegia hirigintzan eta inguruneen diseinuan txertatzeko 32 irizpide



ERASOEKIKO SEGURTASUNA

1. Espazio publikoek inguruko etxebizitza eta establezimenduetatik berezko zaintza jasotzen dute.
2. Erabileren nahasketaren eraginez espazio publikoan etengabe jendea dago eta dabil, egun osoan zehar.
3. Ez dago ezkutalekurik, ikuseremuak zabalak dira eta argiztapena egokia da ibiltarientzat.
4. Nahitaezko pasabideak modu egokian landu dira, segurtasun- pertzepzioa areagotuz.

ARRISKUEKIKO BABESA

5. Orokorrean, bide-sarearen diseinuan trafikoa murrizteko eta honen abiadura mantsotzeko neurriak txertatu dira.
6. Oinezkoen, bizikleten eta kotxeen arteko harremana egokia da: batzutan bananduz, bestetan kaleak segurtasunez partekatuz.
7. Pertsona zaurgarriagoak gehiago mugitzen diren inguruneetan neurri bereziak hartu dira trafikoaren aurrean.
8. Espazio publikoaren diseinuak aisialdi- jarduerak eta jolasa gainontzekoekin bateragarri egiten ditu, segurtasun baldintza egokietan.

IRISGARRITASUNA

9. Espazio eta eraikin publikoetan mugikortasun urriko pertsonen irisgarritasuna bermatzen da, eta ikusmen/entzumen urrikoena areagotzeko neurriak hartu dira.
10. Ingurune fisikoen irisgarritasunaz gain, erakunde publikoen zerbitzuak irisgarriagoak egiteko neurriak hartu dira.
11. Oztoporik ez izateaz gainera, irisgarritasun autonomia babesteko elementu egokiak daude, kokapen egokietan: eserlekuak, iturriak, komunak...
12. Autonomia bermatzeaz gain, inguruneen diseinuan kontuan hartu dira zaintzaileen presentzia eta beharrak.

MUGIKORTASUNA

13. Oinezkoentzako sarea segurua lehenetsia, jarraia, irisgarria eta eroso da, gune garrantzitsuenak (genero-ikuspegitik) zuzenean lotzen dituelarik.
14. Espaloiak eta oinezko espazioen diseinuan bestelako jarduerak ere hartu dira kontuan (harremanak, jolasa, atsedena, zainketak...).
15. Bizikletazko sarea osoa, segurua eta eroso da, bere erabilera sustatzeko neurriak hartu direlarik.
16. Garraio publikoaren sarea eta zerbitzua egokiak dira, bai auzoen eta udal-zerbitzuen artean, eta baita beste udalerriek in loturan ere.
17. Eremu eta puntu garrantzitsuetan (genero-ikuspegitik) kotxeen erabilera soilik beharrezkoak diren joan-etorrietara murrizteko disuasio-neurriak hartu dira: aparkalekuen eskaintza gutxienera doitzuz, joan-etorriak motelduz, galtzadak estutuz...

ONGIZATEA ETA ELKARBIZITZA

18. Ongizatea babesteko neurriak ari dira hartzen, herrigunean zein auzoetan osasunerako kalte eta arriskuekiko esposizioa saihestuz edo murriztuz.
19. Jarduera fisiko barneratzaile, segurua eta anitza (paseatzea, kirola, jolasa...) sustatzen duten kalitatezko inguruneak daude, herrigunean zein auzoetan.
20. Auzoak ingurune naturalarekin edo landa-ingurunearekin lotuta daude, eta hiri-espazioetan elementu naturalak txertatu dira: landaretza, ura...
21. Esertzeko, atsedean hartzeko eta auzoko bizitzan parte hartzeko espazio eta baliabide publiko eroso, erakargarri eta barneratzaileak daude.
22. Topaketa eta harreman sozial barneratzaileak sustatzen dituzten inguruneetan (guneak eta uneak) hobekuntzak egiten dira.
23. Ekipamendu publikoen sarea orekatua da, eta espazioak, zerbitzuak zein kudeaketa garapen komunitarioan oinarritzen dira, aniztasuna eta elkarbizitza sustatzen direlarik.

ZAINKETAK ETA KONTZILIAZIOA

24. Etxebizitza, lantoki, ekipamendu eta saltokien arteko joan-etorriak uztartzea erraza da.
25. Ekipamenduen eta zerbitzu publikoen dotazioa nahikoa, anitza eta hurbila da, bai eta saltokiena ere.
26. Auzoen ezaugarriek haurren eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzen dute, eta bere zainketa errazten.
27. Espazio publikoak kokapen egokietan eta ondo hornituta daude zainketa-lanetarako: komunak, eserlekuak, iturriak, aterpeak...
28. Ekipamendu publikoek zainketa-lanetarako (elikatzea, itxarotea, komuna erabiltzea...) espazio zein baliabide nahikoa eta egokiak dituzte, barnean eta kanpoan.

PRESENTZIA ETA PARTE-HARTZEA

29. Genero-ikuspegia hirigintzari eta hiri-diseinuari dagozkion erabakien muinean dago eskala eta fase guztietan.
30. Hiri-paisaia ez da diskriminatzailea edo sexista, eta espazio publikoan emakumeei, lan erreproduktiboari edo aniztasunari garrantzia eman zaie (lekuei, memoriari, etab.).
31. Hiri-plangintzari eta hiri-proiektuei lotutako parte-hartze prozesuetan genero-ikuspegiari eta emakumeen ahotsari garrantzia eman zaie.
32. Orokorrean, plangintzan eta proiektuetan emakumeek adierazitako eskaerak lehenetsi dira.

Parte-hartze prozesuan partaide guztiei banatu zaien esku-orria ("txuleta" deitu duguna).

KOM2 Komunikazioa 2

Helburuak ELI-6 eremuaren garapenerako Plan Partzialari genero-ikuspegitik ekarpenak egitera gonbidapena luzatzea herritarrei.

Jarduera mota Komunikazioa udal webgunean.

Non / Noiz Udal webgunea.
2024/10/09

Deitutakoak Herritarrak.

Erabilitako materiala [Oharra webgunean](#)

Edukia **Elizaldeko irisgarritasuna, elkarbizitza eta ongizatea hobetzeko ekarpenak biltzeko galdetegi digitala prestatu dute**



Irailean egindako formakuntza saio bat (udal webgunetik).

Urriaren 17a bitarte bete daiteke, eta 14ko saio irekian ere landuko dituzte proposamenak

Oiartzungo herrigune nagusia hobetzeko prozesua martxan du Udalak. Elizaldeko kaleak eta plazak ikuspegi feministatik aztertzen ari da, orain arteko hirigintza ereduak aintzat hartu ez dituen emakumeen eta kolektibo zaurgarrien premiak ere erdigunean jartzeko. Hirigintza feminista zer den lantzeko oinarritzko bi formakuntza antolatu zituen irailean, eta ekarpenak egiteko fasea irekiko dute orain.

Ongizate indibiduala eta kolektiboa, irisgarritasuna, mugikortasuna, zaintza, kontziliazioa eta

erasoekiko segurtasuna Elizalden nola hobetu aztertu nahi dute. Hasteko, istripuen aurrean babes handiagoa behar duten tokiak, kotxerik ez dutenentzat iristeko zailak diren eremuak, topaketa eta elkarbizitza sustatzeko espazio eta ekipamendu berrietarako aukerak edota erasoekiko segurtasun handiagoa beharko luketen lekuak identifikatu nahi dituzte. Izan ere, hurrengo urteetan Tolarieta eta hilerriaren artean (ELI-6 gunean) garatuko diren etxebizitzak tarteko, auzoaren analisi orokorra egin nahi du Udalak, guztiontzat atsegina den herrigunea sortzeko.

Galdetegi digitala eta saio irekia

Herria egunerokoan bizi duten oiartzuarrak baino adituagorik ez dagoenez, oiartzuarren proposamenak eta ekarpenak jasotzeko galdetegi prestatu dute. Urriaren 17a bitarte egongo da online betetzeko aukera, helbide honetan: www.labur.eus/elizalde-mm

Ordura arte jasotako ekarpenak aztertu eta berriak egiteko parte-hartze saioa egingo dute urriaren 14an (astelehena da), 18:30ean udaletxeko pleno aretoan. ELI-6 gunearen garapenerako proposamen eredu ezberdinak ere aurkeztuko dira.

GAL Galdetegia

Helburuak

- Elizalde genero-ikuspegitik aztertzea eta maparako elementuak (puntu zehatzak, alderdi positiboak zein negatiboak) jasotzea.
- Eguneroko inguruneak genero-ikuspegitik aztertzeko oinarrizko baliabideak ematea.

Jarduera mota

Galdetegi digitala.

Non / Noiz

Udal webgunea, sare sozialak.
2024/10/09 - 2024/10/17.

Deitutakoak

Herritarrak.

Erabilitako materiala

[Oharra webgunean](#)

Edukia

Sarreran aipatu denez, Plan Partzialaren inguruko lanketa osatzeko, Elizalde auzoaren diagnostikoa egin nahi izan da genero-ikuspegitik. Diagnostikoak bazuen helburu bikoitza: batetik, auzoaren azterketa egitea, eta bestetik, lanketa herritarrei hurbiltzea. Izan ere, egunero erabiltzen dituzten espazio eta baliabideen inguruan errazago egiten dituzte ekarpenak herritarrek, hirigintzako tresna baten esparruaren inguruan baino.

SEGURTASUNA ERASOEN ETA MEHATXUEN AURREAN

Eraso eta mehatxu gehienak gizonezkoek egiten dituzte. Hau esanda, erasoen aurrean ez-seguru gisa hautematen diren lekuek ere pertsonen autonomia mugatzen dute, eragina nabarmenagoa delarik -besteak beste- neska eta emakumeengan. Gainera, kontuan izan behar da arazo honek zaintzaileen lana areagotzen duela, emakumeak gehienak.

Aipatu mesedez Elizaldeko leku garrantzitsu bat, zure ustez ERASO EKIKO SEGURTASUN handiagoa behar duena.

BABESA ISTRIPUEN AURREAN

Herriguneetan istripu gehienak eta larrienak gizonezkoek eragiten dituzte. Hau esanda, istripuen aurrean nahikoa babestuta ez dauden lekuek pertsonen autonomia mugatzen dute, eragina nabarmenagoa delarik haur eta adinekoengan. Gainera, kontuan izan behar da nahikoa babestuta ez dauden lekuek zaintzaileen lana areagotzen dutela, emakumeak gehienak.

Aipatu mesedez Elizaldeko leku garrantzitsu bat, zure ustez ISTRIPUEN AURREAN BABES handiagoa behar duena.

IRISGARRITASUNA

Irisgarriak ez diren lekuek pertsonen autonomia mugatzen dute, ez bakarrik desgaitasuna duten pertsonena (EAEn gehiengo emakumeek osatzen dute), beste askorengan ere eragiten baitute (adinekoak, zamak daramatzaten pertsonak edo min hartuta daudenak...). Gainera, kontuan izan behar da irisgarriak ez diren lekuek zaintzaileen lana areagotzen dutela, emakumeak gehienak.

Aipatu mesedez Elizaldeko leku garrantzitsu bat, zure ustez IRISGARRI AGOA izan behar

duena.

MUGIKORTASUNA

Bere kokapen geografikoa dela eta, leku zein ekipamenduetara iristeko ahalegin handia egin beharrak pertsonen autonomia mugatzen du. Eragina larriagoa da kotxerik ez edo gidatzen ez duten pertsonengan (haur guztiak, desgaitasun bat duten gehienak, adineko asko, errenta baxua dutenak...), eta nabarmenagoa da emakumeengan gizonengan baino. Gainera, kontuan izan behar da iristeko ahalegin handia edo denbora asko eskatzen duten lekuek zaintzaileen lana areagotzen dutela, emakumeak gehienak.

Aipatu mesedez Elizaldeko leku edo ekipamendu garrantzitsu bat, zure ustez **KOTXERIK EZ DUTENEN EDO GIDATZEN EZ DUTENEN** bizimodua zailtzen duena.

ONGIZATE ETA GARAPEN PERTSONALA

Oso garrantzitsua da gure egunerokoan on egingo diguten inguruneak eskura izatea, are gehiago baliabide material gutxien dituzten pertsonen kasuan. Ildo horretan, badakigu ongizate indibidualerako (osasun fisikoa eta mentala) zein garapen pertsonalerako (kultura, kirola...) inguruneek pertsonen beharrian zein ohiturekin bat egin behar dutela. Eta badakigu baita ere ingurune asko modu desberdinean erabiltzen eta baloratzen dituztela gizarteko talde desberdinek (emakumeek eta gizonek, adibidez).

Aipatu mesedez Elizaldeko leku edo ekipamendu bat, **ONGIZATE INDIBIDUALA** irabazten laguntzen dizuna.

TOPAKETA ETA ELKARBIZITZA

Gizarte baten ongizaterako eta kohesiorako beharrezkoak dira topagune eta jarduera inklusiboak, are gehiago bakardade egoeran daudenentzat edo sare-sozial ahulak zein urriak dituztenentzat. Badakigu topaketarako eta elkarbizitzarako inguruneek pertsonen beharrian zein ohiturekin bat egin behar dutela. Eta badakigu baita ere ingurune asko modu desberdinean erabiltzen eta baloratzen dituztela gizarteko talde desberdinek (emakumeek eta gizonek, adibidez).

Aipatu mesedez Elizaldeko leku edo ekipamendu bat, zure ustez **TOPAKETA ETA ELKARBIZITZA** sustatzen dituen.

ERREPRODUKZIO- ETA ZAINZA-LANAK

Oraindik nahikoa baloratzen ez badira ere, zaintza-lanak behar-beharrezkoak ditugu: etxean nahiz kalean, zaintza-lanean diharduten pertsonen inguratuta gaude. Zainketa horien hartzailak anitzak dira (haurrak, adinekoak, desgaitasunen bat dutenak...), baita zaintzaileak ere, baina badakigu oraindik emakumeek (ordainpean edo ezeren truke, gustora zein gogoz kontra) askoz ere zaintza-lan gehiago egiten dutela gizonezkoek baino.

Aipatu mesedez Elizaldeko leku bat, zure ustez **HAURREN EDO MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ZAINZA** errazten duena.

Emaita

9 erantzun jaso dira, Mapa Digitalean daude ikusgai, dagokion geruzan.

ELIZALDEko MAPA MOREA

ELIZALDEko hiri-diagnostiko kolektibo bat genero-ikuspegitik osatzeko galdetegi digitala duzu honokoa.

Elizaldeko ELI-6 eremuko Plan Partzialari lotutako lanketa da hau, Oiarzungo Udalak sustatua: Plan honen bitartez 200 etxebizitza inguruko garapen bat gauzatu da datozen urteotan, eta auzoko egunerokotasunean izan dezakeen garrantzia ikusirik, Plan horretan genero-ikuspegia txertatzeko prozesua jarri du abian Udalak.

El objetivo de este cuestionario digital es realizar un diagnóstico urbano colectivo de ELIZALDE desde la perspectiva de género.

Se trata de una iniciativa promovida por el Ayuntamiento de Oiarzun y vinculada al Plan Parcial del ámbito ELI-6 de Elizalde. Este Plan es una paso clave para desarrollar 200 viviendas en los próximos años, y dada la importancia que puede tener en el día a día del barrio, el Ayuntamiento ha puesto en marcha un proceso para incorporar la perspectiva de género en dicho Plan.



*

- Jarraitu euskaraz
- Continuar en castellano.

Aurrera

1/9 orria

Garbitu inprimakia

HASI AURRETIK

Egitasmo honek Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren dirulaguntza jaso du.

Datak

- Uztailak 9 eta 16: Gaiaren inguruko prestakuntza saioak egin genituen, ordezkari politikoei zuzenduak.
- Irailak 18 eta 23: Gaiaren inguruko prestakuntza saioak egin genituen, emakume taldeei zuzenduak (eta herritar orori zabalik).
- Urriak 14, astelehena, 18:30etan, Udaletxeko areto nagusian: Partaidetzako lanketa-saioa, emakume taldeei zuzendua (eta herritar orori zabalik).
- **Urriak 17: Galdetegi osatzeko epemuga.**

Galdetegi betetzeko laguntza

[1] Prestakuntza saioetan erabilitako edukiak laburtuz gida txiki bat prestatu dugu, udalerriko alderdi negatiboak eta positiboak genero ikuspegitik identifikatzen laguntzeko. Begiratu bat botatzea gomendatzen dizugu:

www.labur.eus/elizalde-mm-gida

www.labur.eus/elizalde-mm-guia (gazteleraz)

[2] Atal bakoitzaren hasieran leku bat aipatzea eskatzen dizugunean, malgua izan zaitezke: puntu zehatz bat, ibilbide bat edo eremu zabalago bat izan daiteke. Hura kokatzeko izena jartzea nahikoa ez dela iruditzen bazaizu, eskertuko genizuke izenari zenbait datu gehitzea.

Bete ta zabal zazu

Ahal baduzu, galdetegiari erantzutea eskatzen dizugu, eta aldi berean, laguntza eskatu nahi dizugu galdetegi Elizalden eta Oiarzunen zabaldu dadin: jaso duzun mezua berbidali dezakezu, edo bestela esteka honen bitartez egin dezakezu:

www.labur.eus/elizalde-mm


Atzera

Aurrera

2/9 orria

Garbitu inprimakia

ZURE DIAGNOSTIKOA



SEGURTASUNA ERASOEN ETA MEHATXUEN AURREAN

Eraso eta mehatxu gehienak gizonezkoek egiten dituzte. Hau esanda, erasoen aurrean ez-seguru gisa hautematen diren lekuek ere pertsonen autonomia mugatzen dute, eragina nabarmenagoa delarik -besteak beste- neska eta emakumeengan. Gainera, kontuan izan behar da arazo honek zaintzaileen lana areagotzen duela, emakumeak gehienak.

Aipatu mesedez Elizaldeko leku garrantzitsu bat, zure ustez ERASOEKIKO SEGURTASUN handiagoa behar duena.

Lekuaren izena.


Zure erantzuna

Lekuaren ezaugarri bat hitz batean.

Zure erantzuna

Leku honetaz besterik esan nahi? (deskribapena, hobekuntza proposamenak...).

Zure erantzuna



BABESA ISTRIPUEN AURREAN

Herriguneetan istripu gehienak eta larrienak gizonezkoek eragiten dituzte. Hau esanda, istripuen aurrean nahikoa babestuta ez dauden lekuek pertsonen autonomia mugatzen dute, eragina nabarmenagoa delarik haur eta adinekoengan. Gainera, kontuan izan behar da nahikoa babestuta ez dauden lekuek zaintzaileen lana areagotzen dutela, emakumeak gehienak.

Aipatu mesedez Elizaldeko leku garrantzitsu bat, zure ustez ISTRIPUEN AURREAN BABES handiagoa behar duena.

Lekuaren izena.

Zure erantzuna

Lekuaren ezaugarri bat hitz batean.

Zure erantzuna

Leku honetaz besterik esan nahi? (deskribapena, hobekuntza proposamenak...).

Zure erantzuna



IRISGARRITASUNA

Irisgarriak ez diren lekuek pertsonen autonomia mugatzen dute, ez bakarrik desgaitasuna duten pertsonena (EAEn gehiengoa emakumeek osatzen dute), beste askorengan ere eragiten baitute (adinekoak, zamak daramatzaten pertsonak edo min hartuta daudenak...). Gainera, kontuan izan behar da irisgarriak ez diren lekuek zaintzaileen lana areagotzen dutela, emakumeak gehienak.

Aipatu mesedez Elizaldeko leku garrantzitsu bat, zure ustez IRISGARRIAGOA izan behar duena.

Lekuaren izena.

Zure erantzuna

Lekuaren ezaugarri bat hitz batean.

Zure erantzuna

Leku honetaz besterik esan nahi? (deskribapena, hobekuntza proposamenak...).

Zure erantzuna



MUGIKORTASUNA

Bere kokapen geografikoa dela eta, leku zein ekipamenduetara iristeko ahalegin handia egin beharrek pertsonen autonomia mugatzen du. Eragina larriagoa da kotxerik ez edo gidatzen ez duten pertsonengan (haur guztiak, desgaitasun bat duten gehienak, adineko asko, errenta baxua dutenak...), eta nabarmenagoa da emakumeengan gizonengan baino. Gainera, kontuan izan behar da iristeko ahalegin handia edo denbora asko eskatzen duten lekuek zaintzaileen lana areagotzen dutela, emakumeak gehienak.

Aipatu mesedez Elizaldeko leku edo ekipamendu garrantzitsu bat, zure ustez KOTXERIK EZ DUTENEN EDO GIDATZEN EZ DUTENEN bizimodua zailtzen duena.

Lekuaren izena.

Zure erantzuna

Lekuaren ezaugarri bat hitz batean.

Zure erantzuna

Leku honetaz besterik esan nahi? (deskribapena, hobekuntza proposamenak...).

Zure erantzuna



ONGIZATE ETA GARAPEN PERTSONALA

Oso garrantzitsua da gure egunerokoan on egingo diguten inguruneak eskura izatea, are gehiago baliabide material gutxien dituzten pertsonen kasuan. Ildo horretan, badakigu ongizate indibidualerako (osasun fisikoa eta mentala) zein garapen pertsonalerako (kultura, kirola...) inguruneek pertsonen beharrian zein ohiturekin bat egin behar dutela. Eta badakigu baita ere ingurune asko modu desberdinean erabiltzen eta baloratzen dituztela gizarteko talde desberdinek (emakumeek eta gizonek, adibidez).

Aipatu mesedez Elizaldeko leku edo ekipamendu bat, ONGIZATE INDIBIDUALA irabazten laguntzen dizuna.

Lekuaren izena.

Zure erantzuna

Lekuaren ezaugarri bat hitz batean.

Zure erantzuna

Leku honetaz besterik esan nahi? (deskribapena, hobekuntza proposamenak...).

Zure erantzuna



TOPAKETA ETA ELKARBIZITZA

Gizarte baten ongizaterako eta kohesiorako beharrezkoak dira topagune eta jarduera inklusiboak, are gehiago bakardade egoeran daudeneentzat edo sare-sozial ahulak zein urriak dituztenentzat. Badakigu topaketarako eta elkARBIZITZARAKO inguruneek pertsonen beharrian zein ohiturekin bat egin behar dutela. Eta badakigu baita ere ingurune asko modu desberdinean erabiltzen eta baloratzen dituztela gizarteko talde desberdinek (emakumeek eta gizonek, adibidez).

Aipatu mesedez Elizaldeko leku edo ekipamendu bat, zure ustez TOPAKETA ETA ELKARBIZITZA sustatzen dituena.

Lekuaren izena.

Zure erantzuna

Lekuaren ezaugarri bat hitz batean.

Zure erantzuna

Leku honetaz besterik esan nahi? (deskribapena, hobekuntza proposamenak...).

Zure erantzuna



ERREPRODUKZIO- ETA ZAINZA-LANAK

Oraindik nahikoa baloratzen ez badira ere, zaintza-lanak behar-beharrezkoak ditugu: etxean nahiz kalean, zaintza-lanean diharduten pertsonen inguratuta gaude. Zainketa horien hartzailak anitzak dira (haurrak, adinekoak, desgaitasunen bat dutenak...), baita zaintzaileak ere, baina badakigu oraindik emakumeek (ordainpean edo ezeren truke, gustora zein gogoz kontra) askoz ere zaintza-lan gehiago egiten dutela gizonezkoek baino.

Aipatu mesedez Elizaldeko leku bat, zure ustez HAURREN EDO MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ZAINZA errazten duena.

Lekuaren izena.

Zure erantzuna

Lekuaren ezaugarri bat hitz batean.

Zure erantzuna

Leku honetaz besterik esan nahi? (deskribapena, hobekuntza proposamenak...).

Zure erantzuna



PRESENTZIA ETA ADIERAZGARRITASUNA

Gure herrietako inguruneek (kaleak, plazak, ekipamenduak, parkeak...), bere kokapenaren, neurriaren, diseinuaren edo egindako inbertsioaren bitartez adierazten dute ze garrantzi eman zaion zenbait gairi, edo zein neurritan egokitu diren beharizan batzutura. Hala, gure kaleetan askotan hauteman dezakegu zenbait eskaera edo gizarte-talde erdigunean jartzen direla, eta beste batzu albo batetara geratzen direla.

Aipatu mesedez Elizaldeko leku bat, zure ustez EMAKUMEAK ETA BERE PRESENTZIA aitortzen, indartzen edo sustatzen duena.

Lekuaren izena.

Zure erantzuna

Lekuaren ezaugarri bat hitz batean.

Zure erantzuna

Leku honetaz besterik esan nahi? (deskribapena, hobekuntza proposamenak...).

Zure erantzuna

Atzera

Aurrera

3/9 orria

Garbitu inprimakia

Amaitu baino lehen, zenbait galdera zuri buruz...

Informazio honek galdetegiaren emaitzak ulertzen lagunduko digu. Mila esker emateagatik.

Sexua-generoa *

- Emakumea.
- Gizona.
- Beste bat.

Adina *

- <18
- 18-24
- 25-44
- 45-64
- 65-74
- +75

Zein da zure harremana desgaitasunarekin edo zaintza-lanekin? *

- Desgaitasunen bat dut.
- Adin txikiko bat edo gehiago daukat ardurapean.
- Adineko edo mendekotasun egoeran dagoen norbait zaintzen dut.
- Beste bat.

Zein da zure harremana Elizalderekin? *

- Bertan bizi naiz edo bizi izan naiz.
- Ez naiz bertan bizi baina oso ondo ezagutzen dut.
- Gutxi ezagutzen dut.
- Beste bat.

Atzera

Aurrera

4/9 orria

Garbitu inprimakia

Amaitzera goaz

Zerbait gehiago esan nahi?

Zure erantzuna

Datu pertsonalen baldintzak *

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, jakinarazten dizugu zuk emandako datuak Oiartzungo Udalaren titulartasuneko fitxategi batean sartuko direla, soilik **Elizaldeko Mapa Morea** prozesua gauzatzeko eta ebaluatzeko helburuarekin erabiliko direla, modu konfidentzian tratatuko direla eta ez zaizkiela hirugarrenei lagako, PROJEKTA URBES enpresari izan ezik (Oiartzungo Udalak kontratatu duen aholkularitza ELI-6 eremuko Plan Partzialean genero-ikuspegia txertatzeko).

Irispide-eskubidea, datuak zuzentzeko eskubidea, ezerezteko eskubidea, tratamendua mugatzeko eskubidea, datuak transferitzeko eskubidea edo aurka egiteko eskubidea gauzatu ahal izateko, idatzizko komunikazioa eta zure nortasun-agiriaren kopia bidali behar dituzu arduradunaren helbidera edo ddpd@oiartzun.eus posta elektronikora. Informazio gehiago: https://www.oiartzun.eus/eu/Tramiteak/Datu_babesa

Onartzen dut datu pertsonalen klausula.

Eskerrik asko!

Botoiari sakatu ondoren galdetegia bidali gabe geratu bada, errepasatu hutsik utzitako erantzunak, seguru asko bat edo beste derrigorrezkoa izango baita.

Atzera

Bidali

9/9 orria

Garbitu inprimakia

DIA Diagnostikoaren mapa digitala


Helburuak

- Diagnostikoa euskarri partekagarri eta osagarri baten gainean modu irekian jartzea.
- Galdetegi digitaleko ekarpenak jasotzea.

Jarduera mota

Garapen teknikoa.

Irudia



Esteka

- [Mapa digitala.](#)

Maparen geruzak

Diagnostiko teknikoa:

- Eremuak.
- Garraioak.
- Espazio publikoa.
- Kaleak.
- Irisgarritasuna.
- Bizikleta.
- Baliabideak.

Partaidetzazko diagnostikoa (parte-hartze saioetako ekarpenak):

- Udaleko arduradunak.
- Emakumeak* + Herritarrak.

Partaidetzazko diagnostikoa (galdetegi digitalean jasotako ekarpenak):

- Herritarrak - Galdetegia.

PH2

Parte-hartzea: Emakume taldeak + Herritarrak 2

Helburuak

- Azken saioa izanik, prestakuntza- eta partaidetza-prozesuaren laburpena egitea.
- ELI-6 eremurako sustatzaileak proposatu dituen alternatibak genero-ikuspegitik aztertzea.
- Aurreko saioan garapen berrirako sortutako irizpideak sustatzaileak proposatu dituen alternatiben gainean aplikatzea.

Jarduera mota

Lanketa-saioa.

Non / Noiz

Udaletxeko areto nagusia.

2024/10/14, 18:30.

Iraupena 01:45.

Deitutakoak

Emakume taldeak eta herritarrak.

Etorritakoak

16 partaide (12 emakume, 4 gizon):

- Emakume taldeetako partaideak eta herritarrak.
- Udaleko teknikari eta langileak:
 - Maribi Joaristi, Hirigintzako Letradua.
 - Andoni Etxezarreta, Udal Arkitektoa.
 - Jon, Hirigintza saileko langilea.
- Udaleko ordezkari politikoak:
 - Joana Mendiburu, Alkatea.
 - Agustin Lekuona, Hirigintzako zinegotzia.
 - Nora Vélez del Burgo, Feminismo zinegotzia.
- Aholkularitza:
 - Patxi Galarraga (Projekta Urbes).

Agertu ez direnak


Erabilitako materiala

- [Aurkezpena](#) (PDF, 5MB, 22 orr.).


Landutako gaiak

Prozesuaren laburpena

- Udal arduradunak: prestakuntza saioak, herritarren saioetan parte-hartzea.
- Herritarrak: prestakuntza saioa, parte-hartze saioak, galdetegi digitala.



Bigarren alternatiba.



Alternatiba batek zein besteak sortzen dituzten kale eta espazioen arteko konparaketa.

Garapen berrirako irizpide orokorrak alternatiba horiei aplikatzea.



Lanketa taldetan egin ordez, partaideek nahiago izan zuten elkarrizketa bakarra izan, denok batera. Saio aberasgarria izan zela adierazi zuten gehienek amaieran.



Jasotako proposamenak eta lanketa teknikoak uztartuz sortu da "Proposamenen txostena", memoria honi erantsi zaiona.

